

KONTROL MOZIOA

KALITATEKO ETA GERTUTASUNEN AUTOBUS ZERBITZUAK DIRELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko Gune Publikoko Batzordean aztertutako “Auzoetarako dBus zerbitzuetan hobekuntzei” buruzko interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko maiatzeko udalbatzarrean, metro-pasantea dela eta, eztabaidatu zen mozioaren harira, Udal-gobernutik adierazi zen publikoki metro-pasanteak hobekuntzak ekarriko zituela dBusen auzoetarako lineetan. Izan ere, Mugikortasuneko delegatuak argudiatu zuen pasanteak lagunduko zuela dBusek erdialdean eskaintzen dituen zerbitzuen esfortzua murrizten eta ondorioz, auzo periferikoetako zerbitzuak handitu ahal izango zirela.

Adierazpenok harriduraz hartu ditugu, azkeneko bi urteetan, Udal Gobernutik etengabe adierazi baita pasanteak ez zuela autobus zerbitzuetan murrizketarik ekarriko. 2017ko otsaileko udalbatzarrean hauxe bera defendatzen zuen mozia onartu zen aho batez:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gainontzeko garraio publikoekiko bizikidetzarekin lotutako linea eta zerbitzu aldaketek ez dezatela donostiar gehienentzat (bereziki emakumezko eta adinekoentzat) funtsezkoak diren dBus-en zerbitzuetan murrizketarik eragin.

Azkeneko udalbatzarrean esandakoa, ordea, ez dator bat, inondik ere, konpromiso honekin eta gure taldeari kezka eragin dio. Ez dakigu txosten tekniko zehatzik dagoen honen inguruan edo zertan oinarritzen diren adierazpenok.

Gaur gaurkoz dakigun bakarra da 2016ko urtarrilean behin betikoz onartutako Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Informatiboan jasotzen diren ondorioek diotena: alegia, 9 milioi bidaia/urtean kenduko lizkiokeela dBusi eta zenbait ama-lineatan murrizketak egin behar izateaz gain (28 eta 13), linea nagusi batzuk ere kendu beharko lirakekeela: 5, 24 eta 27. Murrizketa eta aldaketa larriak Tranbia Konpainiarentzat eta donostiarrentzat.

Ekainaren 19ko batzordeetan, gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun aurreko udalbatzarrean egindako eta ondoren prentsan argitaratutako dBus zerbitzuetan hobekuntzak izango zirela zioten adierazpen politiko horiek funts teknikorik ez zutela eta ez zegoela justifikatzen zituen txosten teknikorik. Ez dBuseko teknikariena, ezta bestelako garraioarekin lotutako erakunde publikoena ere. Eta zentzutasunaren ondorio zirela.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia


Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Tranbia Konpainiako zerbitzuen aldaketa-iragarpenek dagokien justifikazio eta oinarri teknikoa izan dezatela eta horretarako, aurretiaz, beharrezko mugikortasun planifikaziorako txosten teknikoak izan ditzatela eta dBuseko Administrazio Kontseiluan azter daitezela.

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari iragarri zuen erdiguneko dBus zerbitzuak gutxitzeko egitasmoa ez dezala aurrera eraman eta berma ditzala hiri osoan kalitatezko eta gertutasuneko autobus zerbitzuak.

Donostian, 2017ko ekainaren 22a



Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia